



Biba Mina!
Kontuak eta kantuak
Larrea, Kepa

ISBN: 978-84-9172-009-6
Saio eta Testigantza, 194
50 argazki eta irudi koloreetan
2017. urtea / 17 x 24 cm / 160 or.

16,00€

Xabier Mina Frantziako iraultzaren bezperan jaio zen Nafarroan (1789). Ikasia, euskalduna, Nafarroako gerrillarien burua Frantsestean, Estatuko preso Frantzian eta Mexikoko gudaroste insurjentearen jenerala independentzia gerrateetan. Nafar gaztea legenda bilakatu zen. Ekintzak bata bestearen ondotik zetozkion. Minaren istorioak eta gertaerak ahoz aho zabaldu ziren, egiazkoak zein gezurrezkoak. Nafarroan mila gizoneko gerrillari taldea zuzendu zuen, Nafarroako Dibisioaren ernamuina izango zena. Mexikora gudaroste txiki bat eraman zuen, Europako eta Ameriketako 300 ofizial prestuez osatua; horietatik gutxi batzuk baino ez ziren bizirik irtengo. 1817an, 28 urte zituela, Mexikon Borboi erregearen gudarosteak atxilotu eta atzetik fusilarazi zuten, traidoreen antzera. Mexikon, berriz, maila goreneko heroi bilakatu zen. Askatasunaren eta independentziaren alde borrokatu zuen beti. Xabier Mina hil eta lau urtera Mexikok independentzia erdietsi zuen.



KEPA LARREA MUXIKA (Basauri, Lapatza, 1956)



Euskal Filologian lizentziatua eta Geografia eta Historian doktorea. Irakaskuntzan hasi aurretik bestelako lanak egin ditu, hala nola delinearzailea, administrataria eta itzultzailea. Arrigorriagako Udal Euskaltegian ari izan

ondoren, egun EHuko irakaslea da Hizkuntza eta Literaturaren Didaktikaren Sailean.

Tantak, Hizpide, Revista de Psicodidáctica, Gerónimo de Uztariz eta *Euskalingua* aldizkarietan argitaratu ditu bere lanak. Aipagarrien artean: «Ikasleen hizkuntza erroreak eta hutsegiteak», «Bigarren hizkuntzaren eskurapenerako hainbat oinarri eta proposamen metodologiko», «Euskalduntzearen umoreak».

Horrez gain, DBHrako eskola liburuak (*Euskal Hizkuntza eta Literatura*, Erein) eta zenbait monografia kaleratu ditu: *Nola atera EGA euskara jakin gabe* (Likiniano, 2003), *Adurren irudiez hornitua, Euskalduntzearen atakan* (Erein, 2005), *Itzalak haturik* (Pamiela, 2011. Juan Zelaia Saria-2010), *Mina edo Libertatea!* (Pamiela, 2017) eta *Biba Mina! Kontuak eta kantuak* (Pamiela, 2017).

